

AURKIBIDEA

Abuztuaren 2an, URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA	44
Abuztuaren 9an, URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA	11
Abuztuaren 15ean, MARIAREN ZERURATZEA	18
Abuztuaren 16an, URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA	25
Abuztuaren 23an, URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA	32
Abuztuaren 30ean, URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA	39
Irailaren 6an, URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA.....	46
Irailaren 13an, URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA.....	53
Irailaren 20an, URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA.....	60
Irailaren 27an, URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA.....	66

Abuztuaren 2an
URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA

Agurra

Biziaren ogia dugun Jesus Jaunaren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaurko Ebanjelioan Jesusek erakutsiko digu, guztiok geuretik jarritz, denontzat irits daitekeela ongia.

Gaurko Eukaristian egin dezagun ahalegin berezia biziki parte hartzeko, adi egonez, arretaz erantzunez eta geuretik ipiniz, denontzat ospakizun pozgarria izan dadin.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Aitortzen diot...

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

—Erruki, Jauna... Kristo, erruki... Erruki, Jauna.

Otoitza

Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzariei
eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;
eta egile eta gidari aitortzen baitzaituzte,
biziberri ezazu etengabe eta zaindu
Zeuk egina den mundu hau.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Hitzaren iturrira goaz: Jesusengan aurkitzen dugu dena, behar dugun guztia. Bera dugu Hitz bizi eta Ogi bizi-emaile. Entzun dezagun.

Lehenengo irakurgaia (Is 55, 1-3)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

«Egarri zareten guztiok, zatozte ur bila,
etorri, dirurik ez duzuenok ere;
erosi garia eta jan ordaindu gabe, erosi ardoa eta esnea hutsean.
Zergatik gastatu dirua, goserik utziko zaituzten janaritan,
eta lansaria, aseko ez zaituzten gauzatan?
Entzun Niri arretaz, eta ondo jango duzue,
janari gozo mamitsuz elikatuko zarete.

Etorri Nigana eta egon adi,

entzudazue eta biziko zarete.

Betiko ituna egingo dut zuekin,

Davidi eginiko maitasunezko agintzariari leial eutsiz».

Erantzun-salmoa (Sal 145 [144], 8-9. 15-16. 17-18)



E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
ta mai - ta - su - na.



- ✠ Errukiorra eta bihozbera **da** Jauna,
 haserregaitza eta onginahiz **betea**.
 Ona da Jauna guzt**ti**entzat,
 gupidaz betea bere sorkari guzt**ti**entzat. ✠.
- ✠ Zuri begira daude **denak** zain,
 eta Zuk ematen diezu jaten bere **garaian**;
 zabaltzen duzu **eskua**,
 eta bizidun oro onginahiz duzu **asetzen**. ✠.
- ✠ Zintzoa da Jauna bere bide guzt**ti**etan,
 leiala egintza guzt**ti**etan.
 Hurbil dago Jauna dei egiten dioten**nen**gandik,
 benetan dei egiten dioten guzt**ti**engandik. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 8, 35. 37-39)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Nork aldenduko gaitu Kristok digun maitasunetik?
 Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak,
 ezpatak? Horietan guztietan erraz ateratzen gara garaile, maite izan
 gaituen hari esker.

Ziur dakit: ez heriok eta ez bizik, ez aingeruk eta ez goiko beste
 indarrek, ez oraingok eta ez gerokok, ez inolako boterek, ez ortziko
 eta ez lur azpiko indarrek, ez beste inolako izakik, ez gaituela
 aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunagan agertu digun
 maitasunetik

.

Aleluia (*Mt* 4, 4b)



✠. Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi,
Jaungoikoaren ahotik ateratzen den
hitz guztitik baizik. ✠.

Ebanjelioa (Mt 14, 13-21)

Homiliarako argibideak

Eman zuek jaten

Parabolen zatia amaiturik, beste alor batean sartzen gara Mateoren ebanjelioan. Paraboletan adierazi duen Erreinua (*ikus aurreko igandeak*), elkarte jakin batean gertarazi eta mamitu nahi du. Herri berri bat sortuko du, eta herri hori izango da Erreinuaren legami gizartean. Jakina! Erreinua gertarazteak bere sustraiak eta bere baldintzak ditu, gaurko irakurgaietan nahiko zehatz eta argi agertzen diren sustrai eta baldintzak.

Sustrai edo oinarri, maitasuna dago. “Erruki izan zituen” (*ik. Ebanj.*). “Nork aldenduko gaitu Kristoren maitasunetik?” (2. *irak*). Ez da, gaur bai eta bihar ez ari den maitasuna, betirako maitasuna da, betirako elkargoan sendotzen den maitasuna. Jainko berberaren maitasun azkengabea. Hor hasten dena eta hor burutzen dena. “Ona da Jauna guztientzat, errukior berak egin dituenentzat” (*salmoa*).

Maitasun honetatik abiaturik, Jainkoaren errukia otordu bihurtzen da gaurko ebanjelioan. Jatea eta edatea askotan agertzen dira Biblian, Jainkoaren bihotza ezagutzero emateko. Jainkoak betetasunaren

otordura bildu nahi gaitu. Betetasun hori beraren ezaguera da. Eta Jainkoak gurekin jan nahi du, otorduan bera ezagutu dezagun. Ez al ditugu otorduak erabiltzen elkar ezagutzeko eta geure adiskidetasuna lantzeko? Jainkoak parekorik ez duen otordua prestatu digu, eta maitasuna jan/edan dezakegu, ase arte.

Jainkoaren maitasuna ez da inoiz abstraktua, ez da hitz ederretan edo sentimendu hutsetan geratzen. Gizon sufritzailearen aurrean, Jesusek errukia sentitzen du. Askotan hunkitu egiten gara miseriaren irudiekin, baina paralizatuta eta ezinduta geratzen gara. Jesus, ordea, ez. Irtenbideak aurkitzen daki. Ez dira errazkeriazko irtenbideak, elkartasunaren mirariak baizik: elkarbanatzea, norberak dituen ondasunak besteen esku jartzea.

Eliza, bere Maisua jarraituz, mendeetan zehar behartsuei laguntzen saiatu da. Beti izan du erronkei aurre egiteko baliabide nahikorik ez zuen irudipena. Eta egia da. Jesusek ere ez zituen harriak ogi bihurtu nahi izan, eta guk ere ez ditugu gure arazo guztiak bakarrik konpontzeko gaitasunik. Gizadi osoa inplikatu beharra dago, gosearen arazoak gizadi osoa ezegonkortu baitezake. Jesusek bazutenen lankidetzak eskatu zuen eta horrela egin zuen miraria. Gaur egun, borondate oneko gizaki guztiak pobreziaren eta haren kausen aurka borrokatzera gonbidatu behar dira. Neurritasunaren kulturak, herrien arteko aliantza solidarioak eta ondasunak elkarbanatzeko prestutasunak bakarrik eman diezaiokete erantzuna gosearen arazoari.

Eukaristiaren ospakizunak biziaren ogiaren biderkatzea gauzatzen du. Eman diezaiogun eskerrak Jesusi, bere Gorputz eta Odolaz, bere maitasunaz elikatzen gaituelako. Izan gaitezen gu ere biziaren iturri gure mundu behartsuarentzat.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senideok, Jainko Aitari eta eska diezaiogun entzun ditzala bihotzez egiten dizkiogun otoitzak.

- Leon Aita Santuaren alde, Fernando gure Gotzainaren alde eta eliz-ardurak dituzten guztien alde: Jaunak bere Hitza zuzen aldarrikatzeko jakinduria eman diezaien. Egigun otoitz. R/.
- Bere etxetik eta familiatik urruti diren guztien alde, arriskuan bizi diren guztien alde: Jaunak aurrera egiteko behar den kemena eman diezaien. Egigun otoitz. R/.
- Herri guztietako eta erlijio guztietako gizakien alde: Jaunak bere onginahia agertu eta bere bidetik gida ditzan. Egigun otoitz. R/.
- Gure senide hildakoen alde: Jaunak errukiz onar ditzan betiko, bere santuen artean. Egigun otoitz. R/.

Gure Jainko eta gure Jauna, Zure Semeak behartsuekiko eta sufritzen duten guztiekiko daukan onginahiean Zure aita-maitasuna adierazi diguzu; entzun gure otoitzak eta egizu Zure indarrak ugaritzen duen ogia gure eskuzabaltasunak bana dezala eta Zure sakramentuetan parte hartzeak beharrik gehiena dutenei begira jar gaitzala beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Zaude gure alde, Jauna,
egitzazu santu ogi-ardo hauek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaitzazu gu ere Zeuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Zaindu ezazu beti, Jauna,
zeruko ogiaz janaritu eta biziberritu duzun zeure herria,
eta, guretzat duzun etengabeko arduraz,
egin gaitzazu betiko bizirako gai.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 9an
URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Itxaropenaren jaia dugu Eukaristia. Itxaropenezko jaia, Jainkoak gudan baduelako itxaropena, Erreinua eraikitzen kementsu ari gaitezen. Eta baita ere guk geuk Jainkoagan badugulako itxaropen sendoa gure bizitzan duen indar-ematean eta babesean. Eukaristia honek zabal dezala gure begirada, Biziaren Jainkoa aurki dezagun eta Hari begira berri gaitezen.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gure **b**akea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **o**gi egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **e**maten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, Espiritu Santuak irakatsirik Zuri Aita esateko eskubidea eman diguzu;
sendotu gure bihotzetan zure seme-alabatzako espiritua,
agindu diguzun bizi betean sar gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzairen liturgiari oharpena

Jainkoaren agertzeko bidea ez da lilura eta handikeria. Isiltasunean, eguneroko gauza apaletan, biziaren xumetasunean: han Jainkoa. Ebanjelioak ere konfiantzarako gonbitea egingo digu.

Lehenengo irakurgaia (1 Erg 19, 9a. 11-13a)

Erregeak lehenengo liburutik

Egun haietan, Elias Horebera, Jainkoaren mendira, etorri eta hango hartzulo batean gelditu zen. Jaunak esan zion: «Atera eta zaude zutik mendian, Jaunaren aurrean; Jauna igaroko da».

Jaunaren aurretik haize zakar indartsuak jo zuen, mendiak urratzen eta harkaitzak zartatzen zituela; baina Jauna ez zegoen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara izan zen; baina Jauna ez zegoen lurrikaran. Lurrikararen ondoren sua; baina Jauna ez zegoen suan. Suaren ondoren haize fin baten hotsa.

Entzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen soingainekoaz; gero, irten eta zutik gelditu zen hartzulo aurrean.

Erantzun-salmoa (Sal 85 [84], 9ab eta 10. 11-12. 13-14)



Jau - na, zu - re on - gi - nai - a e - ra - kus e - zai - gu -



zu, zu - re sal - ba - me - na e - mai - gu - zu.



- Ț. Entzungo dut Jainkoak dioena:
 Jaunak bakea agintzen die bere herriari eta fededunei.
 Hurbil dute salbamera begirune diotenek;
 bai, gure lurraldean kokatuko da Jaunaren aintza. Ț.
- Ț. Maitasunak eta leialtasunak elkar dute te aurkitzen,
 justiziak eta bakeak elkar besar katzen.
 Leialtasuna lurretik da ernetzen,
 justizia zerutik jaisten. Ț.
- Ț. Jaunak emango du euria,
 eta gure lurak ekarriko bere uzta.
 Haren aurretik joango da justizia,
 haren urratsei jarraituko die ongizateak. Ț.

Bigarren irakurgaia (Erm 9, 1-5)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Egia diot –Kristo dut lekuko–, ez diot gezurrik; neure kontzientziak ere, Espiritu Santuak argituta, hala aitortzen dit: handia da nire nahigabea, etengabea nire bihotzeko mina.

Ni neu madarikatua, Kristogandik aldendua, izatea ere onartuko nuke, baldin eta hori nire odoleko senideen onerako balitz. Israelen ondorengoak dira eta Jainkoak seme-alabatzat hartu zituen; haiek dituzte Jainkoaren presentzia aintzatsua, itunak, legea, kultua eta agintzariak; haienak dira arbasoak eta, giza jatorriari dagokionez, haiengandik dator Kristo, gauza guztien gainetik dagoen Jainkoa. Bedeinkatua izan bedi mendeetan. Amen

Aleluia (*Sal* 130 [129], 5)

✠. Jaunaren **zain** nago
haren hitza **dut** itxaro. ✠.

Ebanjelioa (*Mt* 14, 22-33)**Homiliarako argibideak**

Zergatik izan duzu zalantza?

Ziurgabetasun garaian bizi gara, orain arte gure bizitzari eusten zioten ziurtasunak aldakor diren garaiotan. Egoera honen aurrean, askoren erreakzioa egunean egunean bizi, orainaldiaz ahal den neurrian gozatu eta arazoei buruz ez pentsatzea da. Baina badira, baita ere, funtsezko galderak birpentsatzen saiatzen direnak eta bizitzako erronkei erantzuna ematen laguntzen dutenak.

Kristauak gainerako guztiekin partekatzen ditu orainaldiko erronkak, eta eusten dion fedea ez du libratzen ziurgabetasunean bizitzetik. Bere itxaropenaren arrazoia eman behar du besteen aurrean. Igande honetako ebanjelioak fedea zer den ulertzen laguntzen digu: Jainkoarengan konfiantza izatea, berarentzat ezer ez baita ezinezkoa. Fedea, batez ere, Jesusekin izandako topaketa da. Jesus ez dagoenean, haizeak berehala kontrakoak zaizkigu. Esperimentatzen ditugun zailtasunen erdian, askotan burua galtzen dugu eta Jesus bera mamu batekin nahasten dugu (*Mt* 14, 22-33).

Jesusek, hain zuzen ere, beldurrik ez izatera gonbidatzen gaitu. Fedea izatea, Pedrok bezala, uretara bota eta olatuen gainean ibiltzen hastea da. Baina laster eraso zion beldurrak eta hondoratzen hasi zen. Hala ere, garaiz oihukatzen jakin zuen: «Jauna, salba nazazu», eta berehala aurkitu zuen uren gainean eusten zion Jesusen eskua. Jesusek bere fede eskasagatik errieta egin zion. Izan ere, gure bizitzetan Jainkoarengan konfiantza izatea eta, aldi berean, gure zalantzak elkarrekin bizi dira. Baina ez dezagun inoiz ahaztu Jaunaren salbazioa eskatzea.

Haizeak ez ziren Eliasen aldeko ere, Israelgo erregeak zelatatuta ihes egiten zuenean. Bere fedea zalantzan jar ez zedin, sustraietara itzuli behar izan zuen, herriaren fedearen fundamentura, Jainkoa Moisesi agertu zitzaion mendi santuraino ibiliz. Han aurkituko du Jainkoa, modu harrigarrienean (*1 Erg* 19, 9a. 11-13a). Moisesen garaian bezalako gertakaria egon zen: ekaitza, lurrikara, tximistak, baina Jainkoa ez zegoen horietan. Kreazio osoa dardararazten duen Jainko ikaragarria ahots isil eta leun batekin agertzen da orain.

Jainkoak ez du inor beldurtu nahi, konfiantza eman baizik. Gauza bera egin zuen Jesusek bere ikasleak beldurrez beteta zeudenean. Beren bizitzak eta abenturak partekatzen joan diren pertsona gisa aurkezten da, eta harengan konfiantza izan dezakete. Jesus Jainkoak egiten zuen bezala aurkezten da, "Ni naiz" gisa. Baina arimaren eta bizitzaren ekaitz guztiak baretzeko gai den presentzia maitagarria da.

Gure fede falta Kristo Jainkoaren Semearengan dugun fede-aitormenaren bidez bakarrik garaitu eta gaindi daiteke. Ez da galdera bati erantzuteko katiximan ikasitako esaldi egina. Munduaren historia Jainkoaren eta bere Seme Jesu Kristoren eskuetan dagoela sinetsita bizitzea da. Haiek dira gertakarien jabe.

Historiaren antzokia gaizkiaren indarrek menderatutako aintzira zakarra izan daiteke oraindik. Hauek, hala ere, Jaun piztuak garaitu ditu jada, nahiz eta oraindik gure kontra botere jakin bat izaten jarraitzen duten, bakean ez uzteko nahikoa. Baina guk ematen diegun neurrian bakarrik dute gure gaineko boterea, indartsuak direla uste dugun neurrian; egiaz, jada ez dira halakoak. Gure beldurrak eta fede falta dira indartsu egiten dituztenak. Eska diezaiogun Jaunari eukaristia honetan gure fedea handitzeko, harengan errotuta bizi gaitezen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz Kristori, hitz eman zuen bezala entzun dezan Bere izenean bildu garenon otoitza.

- Bakearen alde, Elizen arteko batasunaren alde, gu guztion zorionaren alde.
- Behartsuen alde dihardutenen alde, adinekoei laguntzen dietenen alde, ahulak zaintzen dituztenen alde.
- Nekaturik eta ezinean daudenen alde, arriskuan direnen alde, loturik bizi direnen alde.
- Gure alde otoitz egiten dutenen alde, guk otoitzean gogoan ditugunen alde, gure hildakoen betiko atsedenen alde.

Jainko ahalguztidun betierekoa, Zure esku dituzu diren guztiak; entzun gure otoitzak eta egizu bizirik eta eginkor suma zaitzagula gure historian, zailtasunak eramanpenez onartu eta Zure erreinuaren bakerantz gertura gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna,
zeure Elizaren dohain hauek,
guk eskaintzeko Zeuk maitasunez emanak;
egin itzazu, zeure indarrez,
gure salbamenaren sakramentu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dugun sakramentu honek salba gaitzala, Jauna,
eta sendotu zure egiaren argitan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 15ean
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Ama Mariaren zerura jasotzea ospatzen dugu Abuztuaren erdi honetan. Denontzat hitz eman zuena Amarengan bete du Kristo Jaunak eta horrek gure itxaropena sendotzen du, gure fedea indartzen. Ospa dezagun bihotzez festaburu eder hau.

Damu-otoitza

Isilune bat egin dezagun, eta sar gaitezen geure baitan, Aitaren errukia gozatzeko.

—Jesus Jauna, zeure Ama zure ondora eraman **nahi** izan duzuna. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zeure burua es**kai**ni diguzuna. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Aitaren eskuinaldetik Ama Mariaren aintza erak**kust**en diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeruko ospera eraman zenuen, gorputz eta arima,
Maria Birjina Sortzez Garbia, zeure Semearen Ama;
egizu, goiko ondasunak bila ditzagula beti,
zeruko ospean parte izan dezagun harekin.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak gizakion bokazioa, egitekoa argitzen du. Mariak bete-betean bereganatu zuen Jainkoaren Hitza, entzule leial izanez, Jaunaren nahia betez eta gauza guztietan bihotz garbiko izanez. Geu ere, Hitzaren entzule apal egin gaitezen, Jainkoaren nahia betetzen ikasteko.

Lehenengo irakurgaia (*Ap 11, 19a; 12, 1-6a. 10ab*)


Apokalipsia liburutik

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdiminez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen.

Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eramane zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

Erantzun-salmoa (*Sal* 45 [44], 10. 11-12. 16)

- ✠. Errege-alabak dituzu zeure aukeratuen artean,
zure eskuinean erregina, urre finez apaindua. ✠.
- ✠. Entzun, alaba, eta ikusi, makur ezazu belarría,
ahaztu zeure herriaz eta aitaren etxeaz. ✠.
- ✠. Zoraturik dago erregea zure edertasunaz;
bera duzu jaun, egiozu ahuspez agur. ✠.
- ✠. Pozik eta alai daramatzate,
eta erregearen jauregira sartzen dira. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 20-27a)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik denak itzuliko dira bizira.

Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



Ebanjelioa (Lk 1, 39-56)

Homiliarako argibideak

Maria, itxaropen ezaugarri

Gaur egungo munduaren errealitateak itxaropenez bizitzeko aukera gutxi uzten dituela dirudi. Urte hauetan lagun ditugun gerra suntsitzaileek agerian uzten dute talde pribilegiatu baten egoismoa, armamentu-lasterketari lotuta, planetaren etorkizuna arriskuan jartzeko zalantzarik ez duena. Migrazio-mugimenduen aurrean mugen itxiera eta pertsonen etorkizun hobea bilatzea eragozten duten harresiak aurkitzen ari dira. Aurrerapen teknologikoa adierazten duen Adimen Artifizialak, aldi berean, gizateriaren etorkizuna mehatxatzen du, gerraren eta pertsonen kontrolaren zerbitzura ere erabiltzen ari baita. Giza kalkuluek diotenez, oraingoz, inork ezin du hori gelditu.

Posible al da oraindik etorkizun hobe batean itxaropena izatea? Zalantzarik gabe, gure itxaropena ez baitago giza kalkuluetan oinarrituta, gurekin ibiltzeko eta Jainkoaren etorkizuna irekitzeko konpromisoa hartu duen Jaunaren promesetan baizik; promesa horiek gure itxaropen guztiak gainditzen dituzte. Gure itxaropena

gure fedetik sortzen da, bereziki kredoaren azken artikulutik: sinesten dut haragiaren piztuera eta betiko bizia (1 Ko 15, 20-26).

Mariaren Zeruratzeak Jesusen piztueran jada inauguratu den gizateria berriaren irudi osoa erakusten du. Ez da supergizakia, Jainkoaren ametsa baizik, gure arreba den eta gure mugak eta handitasun guztiak partekatzen dituen emakume baten apaltasunean gauzatua. Jasokundea bizitza oso baten koroatzea da, non azken ukitua Jainkoak ematen duen, Ama izan dadin Semearen antz handiena duena, haren misterio guztiekin lotuta egon baitzen. Zentzu batean, fede-bizitza baten emaitza da, zeinaren bidez Jainkoa haren sabelean bizitzera etorri baitzen. Horrek ez zuen haren bizitza xumea aldatu, fedean erromes izan baitzen beti, bere historia zehatzeko garaiko seinaleak bereizten saiatuz.

Fedea izan zen bere zorionaren oinarria (Lk 1, 39-56). Mariak bere bizitzaren erdigunean jarri zuen Jainkoa, Jesus Kristorengan agertua, eta bere Semearen kausari, gizakien salbazioari, erabat eskaini zitzaion. Bere burua hustu zuenez, azkenean Jainkoz erabat bete ahal izan zen eta Piztuaren aintzaren bidez eraldatzen utzi. Eraldaketa horrek pertsona osoari eragin zion, gorputz eta arima, bizitako historia zehatz guztiarekin. Maria, aintzan goratua, ez dago urrun guregandik, bizitza sortu berria irenstearekin mehatxatzen duen herensugearen aurkako borrokaren zailtasunen erdian oraindik borrokan ari garenonetik (Ap 11, 9-12, 10).

Maria, erromes den Elizarekin gertuko, itxaropenaren ezaugarri gisa agertzen da guztiontzat. Gure bizitza ez da heriotzarekin ezerezean amaitzen den neke alferrikakoa. Gu ere, gure gorputzak eta arimak, bizi izan ditugun historiak eta maite izan ditugun errealitate guztiak eraldatuak ikustera behartuta gaude. Hori guztia Kristok inauguratutako kreazio berriaren hazia da, eta Mariarengan ere distiratzten ikusten dugu.

Eukaristia honetan, poztu gaitezen Mariarekin, itxaro helmugara iritsi baita, eta eska diezaiogun izan dadila beti guretzat Erreinua etortzearen alde lan egitera garamatzan itxaropenaren ezaugarri.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, zuzen diezazkiogun Jaunari gure otoitzak, Maria Birjina zeruratu zuela ospatzen dugun egun honetan:

- Elizaren seme-alaba guztiek, Jainkoaren Amarekin bat eginik, Jaunaren handitasuna goretsi eta harengan poztu daitezen.
- Jaunaren errukia bere fededunengana iritsi dadin eta gizaldi guztiak poztu daitezen, Jaunak Mariarengan gauza handiak egin dituelako.
- Jaunak, bere besoaren indarrez gora jaso ditzan ezerezak, ondasunez bete ditzan gose direnak eta lagun biezaio bere herriari gure arbasoei hitz eman bezala.
- Bere Ama Erregina koroatu duen Kristo Jaunak, guri ere eman diezagula egun batean, munduaren hasieratik prestaturik duen erreinua.

Jainko Jauna, Zure Semearen Ama egin zenuen Maria Birjina; entzun gure otoitzak eta egizu, haren laguntzaz, parte izan dezagula egun batean betiereko zorionean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Igo bedi Zugana, Jauna, jaieraz egiten ari garen eskaintza, eta, Maria Birjina guztiz dohatsua zeruetara jasoaren otoitzari esker, egizu, gure bihotzak, goi-maitasunaren garrez suturik, jo dezala etengabe zugana. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu salbagarria hartu dugu, Jauna;
egizu, Maria Birjina dohatsua
zeruetara jasoaren otoitzari esker,
piztueraren aintzara irits gaitezela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 16an
URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA

Agurra

Hartzazue Jaunaren maitasun-agurra. Haren bakea izan bedi zuekin

Sarrerako oharpena

Igandeko batzarrak argi adierazi behar du harrera oneko Eliza garela, inongo arrazoiengatik inor baztertzen ez duena, gu ere, garen bezalakoak izanik Jainkoak beti onartzen gaituela ahaztu gabe. Ekin diezaiogun Mezari bihotz zabalez.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun orain, Kristori, errukia eta barkamena:

—Jesus Jauna, gugatik gurutzean hil zinena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, heriotza garaittuz Aitak piztua. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, beti gure alde Aitaren ondoan zaudena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,

ondasun ikusezinak dituzu maite zaituztenentzat;

piztu gure bihotzean zeure maitasunaren garra,

Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,

guk asma ditzakegunak baino handiagoak diren

Zuk agindutako ondasunak irits ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Salbamena ez da Israeldarrentzat bakarrik. Gogo oneko gizon-emakume guztiei agertzen die Jainkoak bere aurpegi maitekorra. Jesusekin topo egiteak horixe agertzen digu modu ederrean.

Lehenengo irakurgaia (*Is 56, 1. 6-7*)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

«Gorde zuzenbidea, egin justizia,
iristear baitago nire salbamena,
agertzeaz nire garaipena.

Jaunaren kultu-zerbitzurako,
haren izena maitatzeko eta haren morroi izateko
atxikiko zaizkion atzerritarrak,
larunbata profanatu gabe gordetzen dutenak
eta nire itunean leial irauten duten guztiak
neure mendi santura ekarriko ditut,
eta pozez beteko neure otoitz-etxean;
onartuko ditut neure aldare gainean
haien erre-opariak eta sakrifizioak;
nire etxea otoitz-etxe baita,
eta hala deituko dute herri guztiek».

Erantzun-salmoa (*Sal* 67 [66], 2-3. 5. 6 eta 8)

- ✠. Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka gaitzala,
ager diezagula aurpegi argia,
ezagut dezaten munduan zure bidea,
nazio guztietan Zugandiko salbamena. ✠.
- ✠. Poztu bitez kantari nazioak,
(-2) zuzentasunez baitituzu gobernatzen herriak
eta gidatzen munduan nazioak. ✠.
- ✠. Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek,
aipa zaitzatela herri guztiek.
Bedeinka gaitzala herriek,
izan diezaiola begirune mundu osoak. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 11, 13-15. 29-32)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Zuei, jentilo, diotsuet: «Jentilen apostolu naizenez, ospetsu egin nahi dut neure zerbitzu hau, ea neure jatorrikoen inbidia pizten dudan eta horietako batzuen batzuk salbatzen ditudan. Israeldarrak baztertzetik Jainkoarekin baketzea etorri baldin bazaio munduari, zer ote datorke Jainkoak haiek berriro onartzetik? Heriotzatik bizira itzultzea izango litzateke hori!

Behin betikoak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoarekin errebelde zinetenok, orain, israeldarren errebeldiari esker, errukia lortu duzue. Era berean haiek ere: orain errebelde bihurtu dira, zuei egin zaizuen errukiari esker errukia lor dezaten. Jainkoak errebelde izaten utzi baitzien gizon-emakume guztiei, denez erruki izateko».

Aleluia (Ik. Mt 4, 23)



℣. Erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten zuen **J**esusek, eta herrian gaitz guztiak sendatzen zituen. ℟.

Ebanjelioa (Mt 15, 21-28)

Homiliarako argibideak

Seme-alaben ogia

Duela berrogeita hamar urte oraindik kristautasuna mendebaldeko erlijio gisa hartzen zen. Egoera erabat aldatu da. Gaur egun, kristau gehienak Afrikan, Asian eta Latinoamerikan bizi dira, mendebaldean, berriz, garai txarrak bizi ditugu. Zalantzarik gabe, Eliza hierarkikoa oraindik gehiengo mendebaldekoa da eta, oraingoz, fedearen berme izan daiteke. Eliza ez da ordezkaritza demokratikoaren arauen arabera gobernatzen, baina gero eta sentikorragoa da bere presentzia unibertsalarekiko. Eliza da erakunderik globalizatuena, eta "errukiaren benetako globalizazioa" zer litzatekeen jakiteko esperientzia handiena duena, ez soilik miseriarena.

Gaur egun, etorkinek, fede-ikasgaiak ematen dizkigute. Egia da haiek, ebanjelioaren erakusten duen bezala, deabru txarrena ezagutzen dutela, miseriarenak alegia, eta askotan nagusien mahaitik erortzen diren apurrak jan behar izaten dituztela (*Mt* 15, 21-28). Askok ziurrenik txakur-bizitza daramate oraindik, bizimodua duintasunez irabazteko legezko lanik aurkitu ez dutelako. Egoera etsi horietan, Jainkoaren mirari bat baino ezin da espero.

Elizak, hasieratik, judaismoaren molde estuak hautsi zituen herri eta kultura guztien bila joateko eta benetan katolikoa izateko, hau da, unibertsala. Kulturen aniztasunean haragi hartzen jakiteko gaitasun miresgarri hori izan zuen, Jainkoaren seme-alaben komunitate handirako beti irekia egonik. Profetek jada bazuten intuizio bat: Jainkoa ezin zela herri bakar baten ondarea izan, atzeritarrek ere Jaunari eman ziezaioketela beren burua zerbitzatzeko (*Is* 56, 1.6-7).

Erronka handia da nagusien eta "txakurren" mundu batetik ogi bera parteka dezaketen benetako "mahaikide" izatera pasatzea. Hori da eukaristiaren ospakizunean presente egiten dugun kristau-ideala. Denok mahai beraren inguruan eserita, ogi bera eta ardo bera partekatuz. Arazoa da elizatik ateratzen garenean, sartzean kendu genituen hesiak eta diskriminazioak berriro ezartzen ditugula.

Etorkinak baztertzeko tentazioa handiagoa da zailtasun ekonomiko garaian bizi garenean. Etorkinek lana eta ongizatea kentzen digutela iruditzen zaigu. Erraz ahazten dugu haiek, beren lan eta ahaleginarekin, ongizate eta oparotasunari ekarpena egiten diotela. Gure elkartasuna proba-garaian agertu behar da, krisiaren ondorioak kolektiborik ahulenen gainean deskargatu nahi ez izateko. Eukaristiaren ospakizunak erruki-bihotza eman diezagula, inor ez baztertzeko prest egon gaitzen denok gonbidatuta gauden bizitzaren otordutik.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

- Eska dezagun gaixorik daudelako edota senideen zerbitzura daudelako igandea ospatzera etorri ezin dutenentzat; ospakizun honetan parte hartzerik ez badute ere, Jaunaren poza falta ez dezaten.
- Eska dezagun behartsuenen zerbitzura bizitza eskaintzen dutenentzat; senideekin partekatzen dutena barne-poz eta alaitasun bihur dadin beraian
- Eska dezagun bidean edota etxetik urrun direnentzat; Jainkoak babes ditzan eta barne-bizitza zaintzeaz ahaztu ez daitezen.
- Eska dezagun guretzat; fedean aurrera egin dezagun eta on egiteko gogoia gero eta handiagoa izan dadin gudan.

Jainko Jauna, bihozbera eta apala den Zure Semearen bidez agertu diguzu gizakiak salbatzeko duzun asmoa; entzun gure otoitzak eta ugari itzazu gudan Kristoren sentipen berak, gure hitzez eta egintzaz Zure maitasun leialaren testigantza eman dezagun beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure dohain hauek;
horien bidez harreman miragarriak ditugu Zurekin;
egizu, Zeuk emandakoak eskainiz,
izan dezagula Zu Zeu hartzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik
zure errukiari deika gaude apalki:
izan gaitezela lur honetan zure Semearen irudikoago,
haren zorion bera izan dezagun zeruan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 23an
URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Fede bera aitortzen dugunok, mahai berean elkartu gara, Kristo gure Jauna aitortuz eta ospatuz; apostoluen oinarri gainean eraikitako Eliza gara, testigu izatera bidalia den Eliza. Senti dezagun elkartasunaren poza.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun orain, Kristori, errukia eta barkamena:

—Jesus Jauna, gugatik gurutzean hil zinena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, heriotza garaituz Aitak piztua. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, beti gure alde Aitaren ondoan zaudena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,
gogo bateko egiten dituzu zeure fededunen bihotzak;
egizu, maita ditzala zure herriak Zuk aginduak
eta itxaro Zuk hitzemaña,
mundu honetako gorabeheren artean,
geure bihotza egiazko zoriona dagoen lekuan jar dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena


Isaiasen hitzak irakaspen argia ematen digute: edozeinek edozer arduragatik duen boterea zerbitzu bihurtzen ikasi behar du, horrela bakarrik izan daiteke Jainkoaren adiskide munduaren aurrean. Gure jarrekek agertzen digute, Jesus guretzat nor den.

Lehenengo irakurgaia (*Is 22, 19-23*)

Isaias Profetaren liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion Xebnari,
errege-jauregiko arduradunari:
«Bota egingo zaitut kargutik eta zauden lekutik kenduko.
Egun hartan neure zerbitzari Eliakimi, Hilkiasek semea, dei egingo diot;
zure soingainekoa jantzarazi, zure gerrikoa ezarri
eta zure aginpidea emango diot.
Aita baten pareko izango da
Jerusalemgo bizilagunentzat eta Judako herriarentzat.

Daviden jauregiko giltzak jarriko dizkiot lepoan;
hark irekia ez du inork itxiko; hark itxia ez du inork irekiko.
Iltzea egur gogorrean bezain sendo ezarriko dut Eliakim,
eta bere senitartearen harrogarri izango da».

Erantzun-salmoa (*Sal* 138 [137], 1-2a. 2b-3. 6 eta 8bc)

- ✠. Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-**bi**hotzez,
nire hitzak entzun dituz**ul**ako;
kantuz goratzen zaitut aingeruen **aur**rean,
eta zure tenplu santurantz begira ahus**pez**ten naiz. **R**.
- ✠. Eskerrak ematen dizkiot zure izenari, '
zure maitasun eta leialtasun**ag**atik,
paregabeak egin baitituzu '
zeure izena eta **pro**mesa.
Dei egin nizunean, erantzun **ze**nidan,
kemena bizkortu bi**ho**tzean. **R**.
- ✠. Gorena da, bai, Jauna, '
baina umilari dio begi**rat**zen;
harroari, berriz, urrutitik ant**ze**maten.
Jauna, zure maitasuna be**ti**koa,
ez utzi bertan behera zeure esku**en** lana! **R**.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 11, 33-36)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Bai handia eta sakona Jainkoaren eskuzabaltasuna, jakinduria eta ezaguera! Bai aztergaitzak haren erabakiak eta bai sumaezinak haren

bideak! Nork ezagutu du Jaunaren pentsamendua? Nor izan da haren aholkulari? Nork eman dio hari lehenengo, gero hark itzuli behar izateko? Harengandik dira gauza guztiak, haren bidez eta harentzat. Aintza berari betieran! Amen.

Aleluia (Mt 16, 18)



✠. Zu Pedro zara, **harkaitza**;
harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure **Eliza**,
eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusi**tuko**. ✠.

Ebanjelioa (Mt 16, 13-20)

Homiliarako argibideak

Jesus, Jainkoaren Semea

Jesusen pertsonak gure garaikoen interesa pizten jarraitzen du, behin eta berriz ikusten ditugun film eta musikalek frogatzen duten bezala. Baina interes hori sarritan anekdotikoa baino ez da. Iraganeko pertsonaia ospetsu bat balitz bezala aurkezten dute, Jesusen garaikoek uste zuten bezala. Berarengan Jeremias edo Joan Bataiatzailea bezalako profeta handiren baten errenkarnazioa ikusten zuten. Horregatik, Jesusek bere ikasleei aurre egiten die, historiaren edo katiximaren bidez ikasitako erantzun bat eman beharrean, erantzun pertsonal bat eman dezaten.

Pedro izan zen Jesusen misterioa, igarri eta aitortu zuena. Pedoren erantzuna ez zen liburuetakoa, Aitak zuzenean iradokitakoa baizik. Hala ere, ebanjelioaren segidak erakutsiko du Pedrok Jesusen mesianismoa era politikoan ulertzen zuela gehiegi, erromatarren boteretik askatzea espero zuten garaiko askok bezala (Mt 16, 13-20). Azken Aita Santuek behin eta berriz errepikatu zuten bezala, inor ez da kristau bihurtzen katixima irakurri duelako, Kristorekin pertsonalki topo egin duelako baizik. Esperientzia hori izan duena Jesusengatik liluratuta sentitzen da, berak bezala bizi nahi du eta bere bizia Haren alde emateko prest dago.

Sinestunok elkartean aitortu behar dugu gure fedea, Eliz gisa batzen gaituena. Garrantzitsuena ez dira formulak berez, adierazten duten errealitatea baizik, baina formula bera erabiltzeak bat izaten laguntzen digu. Pedrok Jesus Mesias gisa, Jainkoaren Seme gisa, aurkezten duten fede-aitorpen horietako bat egin zuen. Formulak bere zentzua du judu munduaren testuinguruan, eta Jesus Jainkoarekin duen lotura bereziari erreparatzen dio. Izan ere, geroko kristologia-formulak Jesusen Seme izatea azpimarratzen dute. Pedoren erantzuna goraiatu zuen Jesusek, Jainkoak zuzenean iradokitako formulazioa zela iritzita, eta ez Galileako arrantzalearen jakinduriak sortua. Fede-aitorpen horri esker, Pedro izan zen Jesus bere Eliza, Itun Berriko herria, eraikiko zuen harria. Fundazio-keinu horrek Jesus Jainkoaren lekuan jartzen du, Jainkoak bakarrik bete ditzakeen promesak egiten baititu bere elkartearen inguruan.

Kristo Jesusengan Elizak duen fedea bere izatearen errealitate banaezina mantendu du beti: egiazko Jainko eta egiazko gizaki. Teologia tradizionala Jesusen jainkotasunaz arduratu zen batez ere, azken ikerketa historikoak, berriz, giza errealitatea ezagutarazten joan dira. Bakoitzak bere lehentasunak izango ditu, baina alderdi biak mantendu beharko dira beti eta, batez ere, nireen desberdinak

diren formulazioak ematen dituztenak kondenatu nahi ez izatea, Jesusen izatearen dimentsio bikoitz hori itzuli nahi baitute. Egia da formulazio guztiak ez direla onargarriak, baina eliz-azterketak erabaki behar du hori.

Jesusen errealitatea ez da ulertzen egiazko Jainkotzat hartzen ez bada. Ez da nahikoa Jainkoaren bidalia edo Jainkoaren partetik salbazioaren bitartekari dela esatea. Jesus Jainkoak gizakiari egindako behin betiko errebelazioa da, hau da, Jainkoak gizakiari egindako dohaintza osoa. Jesus ez da salbatzailea bakarrik, salbazioa bera da. Salbazioa Jainkoak Kristo Jesusengan komunikatzen digunean datza, bere baitan txertatzen gaituenean eta bizitza jainkotiarraren errealitatean sartzen gaituenean. Horregatik da Jesus gure fedearen objektu. Eta nik ezin dut gizon soil batengan sinetsi, gorengoena izan arren. Idolo batengan sinestea litzateke. Jainko absolutua denarengan bakarrik sinets dezaket. Jesusengan sinesten badut eta nire konfiantza guztia harengan jartzen badut, Jainkoa delako da.

Eukaristiaren ospakizunak Kristo Jesusen salbazioa eguneratzen du. Aitor dezagun gure Jainko eta gure Jaun gisa.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

- Jainkoak errukiz zain ditzan Leon Aita Santua, Fernando gure gotzaina eta gure elkarteetan ardura eta zerbitzua duten guztiak.
- Jainkoak eman diezaien lurra lantzen dutenei lanerako indarra, ikertzaileei adimena, ikasleei saiatzeko gogoa eta guztioi geurean irauteko leialtasuna.

—Jainkoak sufritzen duten guztien ezinak entzun ditzan, bereziki lanik gabe eta egoera larrian bizi diren guztienak.

—Jainkoak bere dohainez bete ditzan gure senide, adiskide eta ongile guztiak.

Jakinduriaren iturria zaren Aita guztiz ona, Pedro apostoluari Zure Semearen nagusitasuna agertu zenion; entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu gure fedeak aurki dezala oinarria Pedroren ondorengoaren irakaspenetan, eta herri guztiek, Espirituak argiturik, aitor dezatela Jesus dela Kristo, Zure aintzarako eta gure salbamenerako mundura etorria. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,
zeure seme-alaben herri egin gaituzu;
emaiozu onez zeure Elizari batasuna eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Eraman gudan onez, Jauna, bere betera
zeure errukizko salbamen-egintza;
egin gaitzazu on-onak eta adoretu,
gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 30ean
URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristok deitu gaituelako gara kristau: Berari jarraitzera deitu gaitu, hain zuzen. Baina bere deia eguneroko deia da, eguneroko bizitzan gauzatzen dena. Gaurko ospakizunak Jesusen aldeko aukera garbia egitera eragin gaitzala, prest egon gaitezela leialtasunerako.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Zeru-lurren Jainkoa, Zugandik dator on guztia;
sartu gure bihotzean Zuganako maitasuna;
lot gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,
gure baitan indar dezazun on den guztia
eta indartu duzuna arreta handiz zaindu.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak aukeratzen gaitu gu, ez guk Bera. Baina Berak gu aukeratzeak gure erantzuna behar du. Horretarako hautsi behar ditugu sarritan bizitzeko ditugun moldeak, Jainkoaren erara, maitasunean bizitzeko.

Lehenengo irakurgaia (*Jr* 20, 7-9)

Jeremias Profetaren liburutik

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori;
bortxatu egin nauzu eta menderatu.
Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak.
Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da;
indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut;
Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian.
Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo;
ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».
Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan;
hezurretaraino erretzen ninduen;
saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!

Erantzun-salmoa (*Sal* 63 [62], 2. 3-4. 5-6. 8-9)



The musical notation is written on two staves in a 2/4 time signature with a key signature of one flat (B-flat). The lyrics are in Basque and are aligned with the notes.

Zu - re e - ga - rriz dau - kat go - go - a, Jau -
na, e - ne Jain - ko - a.

Aleluia (Ik. Ef 1, 17-18)

✠. Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak
argi ditzala gure barruko begiak,
jakin dezagun zer itxarotera
dei egin digun. ✠.

Ebanjelioa (Mt 16, 21-27)**Homiliarako argibideak***Bizia galdu eta irabaztea*

Hasiera-hasieratik, Jesusen heriotza eskandalu-bide gertatu zen bai juduentzat eta baita jentilentzat ere. Gurutziltzatu baten testigantza egiteak berekin zuen porrota. Jesusek bere nekaldia iragarri zuenean ere Pedro haserretu eta kontra jarri zen (Mt 16, 21-27). Jesusek “Satanás” izena eman zion une hartan Pedrori, hau da, behaztopa eta eskandalu-bide bihurtu zuen deabru tentatzailearen izena. Denbora gutxi lehenago (joan zen igandeko ebanjelioa) aitortu zuen Pedrok berak Jesus zela Mesias, Jainkoaren Semea. Baina bere giza izaeran, ezin zuen ulertu Mesias sufritzailearen irudi mingarria. Horregatik, gaur, Jesusen ez dio “Harkaitz” deitzen, behaztopa den harri baizik.

Gure salbamen historiaren testigu batzuk agertzen digute posible dela sufrimena bizitzaren iturri bihurtzea, maitasunez bizi badugu eta bihotza zabaltzen badugu besteen sufrimenarekiko. Batzutan ez dugu Jainkoari gure kexua agertzea beste erremediorik, baina beti

prest agertu behar dugu bere asmoa onartzeko, badu eta Jainkoak indarra gure bizitzak aldatzeko, aldaketak bide zaila eta nekea nozitzea berekin izan arren (*Jr* 20,7-9). Jainkoak ez du nahi inork sufritzerik, baina ez zion bere Semeari sufrimena kendu. Jesusek ere ez zuen sufritzea bilatzen, baina Aitarengan zuen konfiantzak sinisterazi zion, bizitzaren eta heriotzaren gainetik dagoena beti Jainkoaren maiatsuna dela. Horrek bultzatzen du san Paulo eskaintza bizi izan gaitezen gu gogoberotzera (*Erm* 12,1-2).

Gurutzearen eromena izan da Jainkoak mundua salbatzeko erabili duen jakinduria handia. Kristoren gurutzeak askori lagundu dio bere gurutzea eramaten. Jesusen gurutzeak geure gurutzeak eraldatu ditu, dagoeneko ez goaz bakarrik, Kristo gurekin dator, gure bidelagun da, gure gurutze-lagun, alegia. Askori kosta egiten zaio, ordea, habean lotua dagoen Jesusi kantatzea. Gure kulturak sahiestu egiten ditu sufrimendua eta heriotza.

Gurutzea ordea gure bizitzaren parte da: gure ahulatasun guztien bilduma eta ezaugarri eta gure izatearen alderdi ilunaren agerpen. Gure argiuneak agertu nahi izaten ditugu beti, gure ahalmenak eta gure lorpenak. Gure ahultasun eta itzaluneak ezkututatu ohi ditugu ordea. Jesusen bidea berriz nekalditik igarotzen da piztuerara iristeko, eta horrela erakusten digu gure ahultasun eta porrotak, gure zauri eta bekatuak bizi-iturri bihurtzeko bidea. Jesusen gurutzea ez da munduko mina eta zapalketa justifikatzeko bide, hori erokeria bat litzateke. Zeharo bestela gertatzen da: Jesusen gurutzea zapalketa eta min horiek salatzeke bidea da. Jesusek gurutzea hartu zuen, gure munduan gurutziltzatu gehiago sekula egon ez dadin.

Bizitza galduz, emanek, bakarrik iristen da egiazko bizitza. Bizitza erabat aprobetxatzen eta muga guztiak gaingintzen saiatzen denak, sarritan dena galtzen du. Bizitza emateko da. Horixe bizi dute ezkonduak, baina baita bere buruaz ahazturik besteentzat bere burua

emanen bizi diren hainbatek ere. Zerbitzua da besarkatu behar dugun bizimodua.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala deika ari zaion herriaren otoitzak:

- Egigun otoitz mundu zabaleko Eliza gogoan izanik; Jaunak lagun diezaion fedean, esperantzan eta maitasunean hazten.
- Egigun otoitz sufritzen duten guztiak gogoan izanik; kartzelatuek, gaixoez eta etxetik urrun diren guztiek Jaunaren babesa eta indarra izan dezaten.
- Egigun otoitz gure senide hildako guztien alde; Jainkoak bere etengabeko errukiz eta beso zabalez onar ditzan.
- Egigun otoitz Eukaristia ospatzen ari garenontzat ere; hemen ospatzen dugunaren fruituak eguneroko jardunean senideen zerbitzura jar ditzagun.

Entzun Zure herriaren otoitzak, Jauna, eta berri gaitzazu egiaren Espirituaz, mundu honetako lilurek engaina ez gaitzaten, baizik eta Zure Semearen egiazko ikasle bezala asma dezagula ongia bereizten eta gurutzea hartuz Kristori itxaropenez jarrai diezaiogula. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskaintza santu honek, Jauna, ekar diezagula beti zure salbamenaren dohaina,
sakramentuetan irudiz ospatzen duguna
zure indarrak bere betera eraman dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Mahai santuko ogia harturik,
otoitz egiten dizugu, Jauna:
maitasunaren agiria den janari honek
sendo dezala gure bihotza
geure senideengan Zu zerbitza zaitzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 6an
URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Guztiok behar ditugu lagunak, haiez inguraturik maitasunean bizitzeko. Errespeturako eta batasunerako deia gure barnean sortzen da, ezin baita inor bakarrik bizi. Jainkoaren Hitzak argitzen gaitu gaur ere Eukaristian, eta besteeikiko harremana berritzen eta sendotzen laguntzen digu. Zabal diezaiogun bihotza onartzen eta dei egiten digun Jainkoari.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatarari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, Zuk salbatu gaituzu eta zeure seme-alabatzat onartu;
begira onbera seme-alaba ordeko egin gaituzunoi,
Kristogan sinesten dugunok egiazko askatasuna
eta betiko bizia izan ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Kristauok beste gizon-emakume guztiekiko errespetuan eta maitasunean bizitzera deituak gaude, ez kanpotik datorren lege bezala, kristauaren bokazioa maitasuna delako baizik. Jainkoaren irudira sortuak gara, Semearengan seme-alaba gara... horra gure duintasuna.

Lehenengo irakurgaia (Ez 33, 7-9)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Gizaseme, Israel herriaren begirale izendatu zaitut. Nik esandakoa entzutean, ohartarazi egin behar diezu nire izenean. Gaiztoen bati hilko dela esaten badiot, eta zuk ez badiozu ohartarazten bere jokabidea alda dezan, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuri eskatuko dizut haren heriotzaren kontua. Aitzitik, zuk ohartarazten badiozu gaiztoari, bere jokabidea alda dezan, eta hark ez badu aldatzen, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuk onik aterako duzu zeure bizia».

Erantzun-salmoa (*Sal* 95 [94], 1-2. 6-7c. 7d-9)

En- tzun- go al du- zu- e gaur Jau- na - ren min - tzo -

a: "Ez go- gor - tu zu- en bi- ho - tza".

- ✠. Zatozte, degiogun poz-oihu **Jaunari**,
poz-irrintzi, salbatzen gaituen hark**kaitzari**.
Aurkez gakizkion eskerrak **eman**ez,
degiogun jai txaloka eta **kantari**. ✠.
- ✠. Zatozte, gurtu dezagun ahus**pezturik**,
belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren **aurrean**.
Bera baita gure Jainkoa, '
eta gu hark larraturiko **herria**,
haren zainpeko art**al**dea. ✠.
- ✠. Entzungo ahal duzue gaur haren **ahotsa**:
«Ez gogortu bihotza Meriban **bezala**,
Masako egunean basamortuan bezala, '
tentatu egin baininduten zuen gur**asoek**,
probatu, Nik eginak ikusi**en** arren». ✠.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 13, 8-10)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Ez izan zorrik inorekin, elkar maitatzekoa baizik, zeren lagun hurkoa maite duenak betea baitu legea. Izan ere, harako «ez egin ad ulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez gutiziatu» eta beste edozein

agindu, esaera honetan biltzen da: «Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala».

Lagun hurkoa maite duenak ez dio gaitzik egiten. Maite duenak, beraz, erabat betetzen du legea.

Aleluia (2 Ko 5, 19)



℣. Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. ℟.

Ebanjelioa (Mt 18, 15-20)

Homiliarako argibideak

Maitasunaren zibilizazioa

Gaur egun, gaizki ulertutako tolerantziaren izenean, ez gara besteen bizitzan sartzen, txutxu-mutxuetarako ez bada, eta ez dugu nahi inor gure bizitzan sartzerik. Bakoitzak bere gustuen arabera jokutzen du. Inozoki uste da norbanakoaren ekintzek ez dutela ondoriorik komunitatearentzat. Teknologiaren aurrerapenak erakusten digu dena konektatuta dagoela eta gizakiak ez garela uharteak. Jainkoak besteen bizitzaren erantzule nahi gaitu (Ez 33, 7-9).

Askotan, posible da pertsona batek gaizkia egitea hori egiten ari dela jakin gabe. Maitasunean oinarritutako jarrera kristaua anai-arreben arteko zuzenketa da. Maitasun kristauak besteari kalterik ez egitea ez

ezik, besteen ongia bilatzea ere eskatzen digu (*Erm* 13, 8-10). Norbaitek ikusten duenean pertsona bat bere egin dituen kristau-eskakizunen arabera bizi ez dela, apaltasun osoz zuzendu behar zaio (*Mt* 18, 15-20).

Une honetan familiak desorientatuta daude, belaunaldien arteko arrakala sortu baita. Nagusiak neurri batean kristau-moralari lotuta jarraitzen dute, belaunaldi gazteagoak, ordea, erabat urundu dira ohiko orientazio moraletik eta bakoitzak bere neurrira egindako jantzia fabrikatzen du. Familian bakearen izenean gai hauen guztien inguruan isiltasuna gordetzen da; isilik sufritu ere bai.

Gaur egungo arazo larrienetako bat hezkuntza-larrialdia da. Eskolak familiekin elkarlanean aritu dira haurrak eta gazteak osotasunean hezteko, ez afera akademiko hutsean geratuz, bizitzari zentzua ematen dioten balioak transmitituz baizik. Familiak eta eskolak beren erantzukizunei uko egiten badiete, arriskua dago pertsona talde handiak bizitzan guztiz desorientatuta geratzeko.

Maitasun kristauaren izenean, bizitza publikoan esku hartu behar dugu eta maitasunaren zibilizazioa ahalbidetuko duen kultura bat sortzen lagundu. Jainkoaren esperientzia izan dugun profeta garen heinean, gure garaikoak mehatxatzen dituzten arriskuez ohartarazten duten zelatari izatera bultzatzen gaitu. Ebanjelioak gizakiok gure interesen bila fabrikatzen ditugun salbazio faltsuak salatzen ditu. Aldi berean, ebanjelioak Jainkoaren salbazioa presente egiten du gure munduan.

Onaren artean zailtasuna ere bada munduan. Kristauok ezin dugu besoak gurutzatuta geratu errealtate horien aurrean. Espiritua eta itxaropena txertatu behar ditugu, maitasunaren benetako zibilizazio bat eraiki ahal izateko. Eukaristiaren ospakizunak maitasuna errealtate egiteko lanean aritzera eramán gaitzala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: jo dezagun Jaunarengana, gure otoitzak entzun ditzan eskatuz:

- Elizaren alde: Jaunak bakea eta batasuna eman diezazkion eta gaitz guztietatik babesturik Ebanjelioaren zerbitzari leial egin dezan.
- Munduko bakearen alde: gizaki guztien bihotzetan maitasuna eta elkarrenganako ulermena erne daitezen.
- Ezinean, gaixo edota goserik daudenen alde: Jaunaren laguntza eta gure arreta eta esku zabala falta ez dezaten.
- Gaur hemen bilduak gaudenon alde: fedean azkenera arte leial iraunez, egun batean zeruko mahaian ere elkar gaitezen.

Jesu Kristo gure Jauna, Zeuk hitz eman diguzu, zeruko Aitak entzuten duela Zure izenean biltzen direnen otoitza; emaguzu espiritu eta bihotz berria, elkar maitatuz Zure legea egiaz bete dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zu zaitugu
egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;
egizu, dohain honen bidez
aitor dezagula eta goretsi zure handitasuna,
eta sakramentu hau hartzeak
sendo dezala gure arteko elkartasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Hitzaren eta sakramentuaren mahaian
janaritzen eta biziberritzen dituzu, Jauna, zeure fededunak;
zure Semearen dohain handiak balia dakizkigula
haren bizian beti parte izatea merezi dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 13an
URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA

Agurra

Bere mahaian biltzen gaituen Mesias Jauna izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

Barkamenaren jaia dugu Eukaristia: maitasunaren eta adiskidetzaren jaia. Gaurko irakurgaiek eta liturgia osoak, gainera, barkamenerako deia eta irakaspena ematen digute. Gaitza eta ona bereizten, gaitza gaizkileagandik bereizten eta guztiaren gainetik barkamena ereiten jakin behar dugu kristauok. Horixe ikasten dugu eta ospatzen gure ospakizunean.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena es**kaini** zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua ag**indu** zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua e**man** zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Diren guztien egile eta gidari zaren Jainkoa,
begira iezaguzu eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea,
zure errukiaren ondasunak suma ditzagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak gurekin egiten duena ezagutzeak elkar onartzen eta begirunez maitatzen lagundu behar liguke. Nola hots egin Jainkoa barkamena dela, beragandik jaso duguna besteei eskaintzen ez badiegu? Barkatua izatearen graziak barkatzen irakasten du, eta barkatzen dakienak bakarrik eskertzen du barkamena.

Lehenengo irakurgaia (*Si 27, 33–28, 7*)

Siraken liburutik

Amorrua eta haserrea higuingarriak dira;
horietan maisu da gizon bekataria.
Mendekatzen denak Jaunaren mendekua jasan beharko du,
bekatuen kontu zorrotza hartuko dio.
Barkatu lagun hurkoari egin dizun iraina,
eta, zuk erregutzean,
barkatuko dizkizu Jainkoak ere zeure bekatuak.
Gizaki batek, amorrua badio beste bati,
nolatan eska diezaioke Jaunari osasuna?

Bere kidekoarentzat errukirik ez duenak,
 nolatan eskatuko du bere bekatuen barkamena?
 Gizaki huts besterik ez denak amorruari eusten badio,
 nork lortuko dio bere bekatuen barkamena?
 Gogoratu amaiera eta egin uko gorrotoari;
 gogoratu ustelkeria eta heriotza,
 eta jarraitu leial aginduei.

Gogoratu aginduak,
 eta ez izan gorrotozik lagun hurkoari;
 oroitu Goi-goikoaren itunaz,
 eta ez hartu iraina kontuan.

Erantzun-salmoa (Sal 103 [102], 1-2. 3-4. 9-10. 11-12)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a

ta mai - ta - su - na.

- ✠. Bedeinka beza nire arim**ak** Jauna,
 nire barren osoak haren izen **sant**ua.
 Bedeinka beza nire arim**ak** Jauna,
 ez bedi ahaztu haren mesed**e**az. ✠.
- ✠. Erru guztiak dizkizu **bark**atzen,
 gaitz guztiak **sen**datzen;
 zure bizia hilobitik ask**at**zen du,
 maitasunez eta errukiz koroatzen **zait**u. ✠.



- ✕. Ez da etengabe auzitan ari,
 ez du haserrea betiko gordetzen.
 Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala,
 ez digu ordaintzen geure erruen arbera. ✕.
- ✕. Nola zerua lurraren gainean garai,
 hala haren maitasuna begirune diotenenttzat handi;
 nola ekialdea mendebaldetik urrun,
 hala ditu hark gure hobenak gugandik urruntzen. ✕.

Bigarren irakurgaia (Erm 14, 7-9)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Gutako inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara.

Honetarako hil eta piztu zen Kristo: hildakoen eta bizien Jauna izateko.

Aleluia (Jn 13, 34)



- ✕. Agindu berria ematen dizuet, dio launak:
 maita dezazmaita dezazuela elkar,
 Nik maite izan zaituztedan bezala. ✕.

Ebanjelioa (*Mt 18, 21-35*)**Homiliarako argibideak***Barkatzen jakitea*

Sarritan, badirudi justiziaren arabera dela bakoitzari berea ematea. Ongia egin badidate, ongia itzuli behar dut. Gaizkia egin badidate, txanpon berdinez ordaindu behar dut. Horrela justifikatzen da gure espetxe-sistema, kriminalek egindakoa ordain dezaten. Giza logikan, niri egin didana ordaindu behar dit; bestela, badirudi nire gaintetik geratzen dela eta ni naizela galtzen ateratzen dena.

Aitzitik, Jesusen eta ebanjelioaren logikan, barkamena eskaintzen da beti, ez bakarrik irainena, baita zorrena ere. Jesusek, jakina, ez zuen administratzaile gisa balio. Dirua administratzeko zuen moduarekin, edozein bankuk porrot egingo luke. Berdin-berdin barkatzen ditu euro batzuk edo milioika. Barkamena Jainkoaren maitasunean oinarritzen da beti, ordaindu ezin den zorra lehenago barkatu baitigu. Horrelako zerbait intuizioz antzemana zuen Sirak liburuaren egileak: ezin da gogor jokatu hurkoarekin eta gero Jainkoak barkatzea eskatu (27, 33-28, 9). Zoritxarrez, barkatu zioten zerbitzari gaiztoak ez du gauza bera egin bere lagunarekin (*Mt 18, 21-35*).

Jesusek ekintza eta erreakzio katea gairatzen gaitu. Ilusio hutsa da gaizkia gaizkiaren bidez garaituko dela uste izatea. Konturatzen gara, aldiz, indarkeriak beti indarkeria sortzen duela. Ebanjelioak, berriz, gaizkia ongiaren bidez garaitzen gaitu, bekatua ugaritu zen lekuan grazia gainezka egotea eragin zuen Jainkoaren estiloan.

Jakina, hau guztia etsaien maitasunaren ikuspegi kristauan bakarrik da posible. Geuk fabrikatzen ditugu etsaiak, gure joera suntsitzailerak justifikatu ahal izateko. Maitasun kristauak badaki pertsona eta haren

egintzak bereizten, bekataria eta haren bekatuaren artean. Jainkoak bekatuari kondena eman zion Kristo Jesusengan, bekatariak salbatzeko. Gizakiak, bere akats eta krimenak gorabehera, Jainkoaren maitasunaren objektu izaten jarraitzen du eta giza duintasunaren subjektu. Horregatik ematen digu Jainkoak beti beste aukera bat, zerbitzari gaiztoak eskatu zuen bezala. Deigarria da nola guk, lehenengo aukeran, zerrendatik ezabatzen dugun gustuko ez dugun zerbait egin diguna.

Funtsean, Jesusek gurutzean bezala esan behar dugu: "barkatu iezaiezu, ez baitakite zer egiten duten". Gizakiak gaizkia egiten badu, ez da txarra delako edo gaizkia egiteak asetzen duelako. Egia esan, gaizkia egiten du, zoriontasun jakin bat eman diezaiokeen ongia egiten ari dela uste baitu, iragankorra bada ere. Batzuetan mendekuaren plazera besterik ez da izango. Baina erratua dago eta ez daki zer egiten duen. Zoritxarrekoa delako egiten du.

Eukaristia honetan onar dezagun Jainkoaren barkamena Kristo Jesusengan eta atera gaitezen geure burua eta iraindu gaituzten guztiak barkatzeko prest.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainkoaren errukiari eta eska diezaiogun entzun ditzala uste onez egindako otoitzak:

- Elizako arduradun eta zerbitzarien alde: Jaunak bizitza leiala izateko grazia eman diezaien, beraien ministeritzari dagokionez.
- Herrietako arduradunen alde: argitasunez eta arretaz joka dezaten guztien eta bereziki behartsuenen zerbitzuan.
- Gaixo eta ezinduen alde: Jaunak barne-sendotasuna eman diezaien bere minetan itxaropenez bizi daitezen.

—Gure alde, gure etxeko eta adiskideen alde: Jaunak emandako dohain guztiak eskertuz bizi gaitezen beti.

Bihozbera eta errukitsua zaren Jainko Jauna, beti barkatzen diezu elkarri barkatzen dakitenei; entzun gure otoitzak eta sor ezazu gugan bihotz berria, Kristoren antzeko izanez besteek egindako minak ahaztu ditzagun eta guztiei gogoraraz diezaiegun Zuk zenbat maite gaituzun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Entzun bihotzez onez, Jauna, gure eskariak eta onartu zeure zerbitzarion eskaintza; gutako bakoitzak zure izena goreseteko eskaintzen duen hau izan dadila gizon-emakume guztien salbamenerako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jauna, jabe dadila dohain zerutarraren indarra gure gorputzaz eta arimaz, gure bizitzan indar hori izan dadin nagusi, eta ez gure nahia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 20an
URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren piztuera oroitzen dugu Igandean; Eukaristian parte hartuz Haren salbamena gugana iristen da. Horregatik, esker onez eta bihotz-berritzeko gogoz garturatzen gara, Kristo izan dadin beti gure bizitzaren erdigune eta ezerk ez gaitzan Berarengandik aldendu.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbattera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,

lege nagusi hau eman diguzu agindu guztien oinarri:

Zu eta lagun hurkoa maitatzea;

egizu, zure aginduak betez, hel gaitezela betiko bizira.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Isaiasek itxaropena eta bizi-indarra ematen dizkigu. Jainkoaren itxaropena da, dohain ematen zaiguna, baina bihotza zabalduz eta jarrera onez guk onartu behar duguna.

Lehenengo irakurgaia (Is 55, 6-9)

Isaias Profetaren liburutik

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen bitartean;
hots egiozue, hurbil dagoen bitartean.

Utz beza gaiztoak bere bidea,
gaizkileak bere asmo txarrak;
itzul bedi Jaunagana, errukiz hartuko baitu,
gure Jainkoagana, guztiz barkabera baita.

Nire asmoak ez dira zuenak bezalakook,
ezta zuen jokabidea ere nirea bezalakoa, dio Jaunak.

Nola zerua lurraren gainetik garai,
hala nire jokabidea zuen jokabidearen gainetik,
nire asmoak zuen asmoen gainetik.

Erantzun-salmoa (Sal 145 [144], 2-3. 8-9. 17-18)



E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a

ta mai - ta - su - na.



7. Egunero zaitut bedeinkatuko,
 beti dut zure izena goretsiko.
 Handia da Jauna, guztiz goresgarria,
 mugarik gabea haren handitasuna. R.
7. Errukiorra eta bihozbera da Jauna,
 haserregaitza eta onginahiz betea.
 Ona da Jauna guzttientzat,
 gupidaz betea bere sorkari guzttientzat. R.
7. Zintzoa da Jauna bere bide guzttietan,
 leiala egintza guzttietan.
 Hurbil dago Jauna dei egiten diotennengandik,
 benetan dei egiten dioten guztiengandik. R.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 1, 20c-24. 27c)

San Paulo Apostoluak Filipinoarrei egindako gutunetik

Senideok: Ziur nago, ni bizirik nahiz hilik egon, bere handitasuna agertuko duela Kristok nigan. Izan ere, niretzat, bizitzearen arrazoia Kristo da, eta hiltzea irabazpide. Baina bizitzen jarraituz lan onuragarria egin ahal badezat, ez dakit nik zer aukeratu.

Bi aldeetatik nago estu: batetik, hil egin nahi nuke, Kristorekin izateko; niretzat hau askoz hobea delarik; baina, bestetik, nik bizirik jarraitzea beharrezkoago da zuentzat.

Hauxe bakarrik eskatzen dizuet: bizi zaitezteela Kristoren Berri Onari dagokion bezala.

Aleluia (Ik. Eg 16, 14b)

✠. Ireki, Jauna, gure bihotza,
gogoz onar ditzagun zure Semearen hitzak. ✠.

Ebanjelioa (Mt 20, 1-16)**Homiliarako argibideak**

Ez gaitu inork lanerako hartu

Lana izatea da etxebitzarekin batera familientzat arazo eta kezka handiena. Lana aurkitzea gero eta zailagoa da. Adin jakin batean lana galtzen dutenek atea ixten ari zaizkiela ikusten dute. Badira zalantzarik gabe lanak, baina iraungitze-data duten lan prekarioak dira. Langilea paperik gabeko etorkina bada, esplotazio-baldintzetan lan egin beharko du. Gazteek etorkizuna blokeatuta ikusten dute. Egoera horren aurrean, ikasteko gogoia galtzen da, ikasketak dituztenentzat zein ez dituztenentzat gauzak ia berdin zail daudela egiaztatzean. Prestakuntza faltak are gehiago zailtzen du egoera.

Jesusen garaian ere, gizakiak plazan pilatzen ziren alferrik, norbait lan eskaintzera etorriko zen zain (Mt 20, 1-16). Jesusen gonbidapena pozgarria da, bere mahastian lana eskaintzen jarraitzen baitu. Jaunaren mahastian, bere Elizaren barruan, ez dago langabeziarik. Aitzitik, lan asko dago eta langile gutxi.

Mahastiaren jabeak, denei sari bera emanaz, lanaren saria baino gehiago, langileak bizitzeko behar zuena eman nahi izan zien.

Berdintasunaren alde eman zien, nolabaiteko lan sari sozial gutxiengoa asmatuz. Dena ez da irabazia eta dirua, Jainkoaren asmoetan denok beharrezkoa izatea da garrantzitsua. Gure jokamoldea ez dator bat Jainkoaren asmoekin (*Is* 55, 6-9).

Zoragarria da Jainkoak bere Erreinua eratzekeo gizakion beharra eduki nahi izana. Denoi dei egiten digu; inoiz ez da berandu lanean hasteko. Belaunaldi berriei fedea eskualdatuz Erreinuaren hedapena eta Elizaren etorkizuna bermatzea dagokigu. Dei egiten jarraitzea, hazia botatzea dagokigu. Galdera egin behar diogu gure buruari, zergatik gaur dei horri erantzutea hain zaila gertatzen zaien belaunaldi berriei...

Pauloren testigantza ere bikaina da (*Flp* 1, 20c-24. 27a). Bere burua besteei eskaini die, fededunak, Ebanjelioari esker, hobeto bizi daitezten. Adinean aurrera egin duenean ere ez dio lanari ihes egiten, baizik eta besteen zerbitzura jarraitzen du. Gure adineko asko bezala: apaiz nahiz sekular, jubilazioko adina ondo pasata ere Elizaren zerbitzuan jarraitzen dute fin asko! Bere zerbitzua besteentzat beharrezkoa dela uste dutelako... Ebanjelioa bazter guztietara helaraziz. Eska diezaiogun Jaunari, jarrai dezala langileak deitzen bere uztarako; eta deitutakoei eman diezaiela bihotz zabala erantzuteko.

Eukaristia ospatzeak, Ogi santua partekatzeak, lagun diezagula fedeak honetara bultatzen gaituela konturatzen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizakien alde eta beraien beharren alde, denek izan dezaten gure maitasunaren laguntza:

—Aita Santuak, gotzainek eta apaizek, zerbitzu jarreraz eta apaltasunez zaindu dezaten beren ardurapeko artaldea.

- Herrietako gobernarien alde: guztien ona bila dezaten, ondasunak banatzen asma dezaten eta denontzat zuzentasuna, ongizatea, bakea eta askatasuna bidera ditzaten.
- Gosea edo bestelako beharrak dituztenen alde, gaixorik eta ezinduta bizi direnen alde, etxetik urrun edota bakardadean daudenaren alde.
- Hemen gaudenok, Espiritu Santuaz beterik eta fedean sendotuta on egiten saia gaitezen beti munduaren onerako.

Aita zuzena, Jainko onginahiz betea, azkenekoei lehenengoei adina ematen diezu; entzun gure otoitzak eta lagundu Zure bideen bikaintasuna aitortuz Zure alorrean lan egitea ohore handitzat izaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskaintzak, fedez aitortzen dugun egia zerutar sakramentu honen bidez lor dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Indarberritu, Jauna, etengabe zeure laguntzaz sakramentu honetan janaritu dituzunak; ospakizunean ez ezik bizitzan ere zure salbamen-egintzaren fruituak jaso ditzaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 27an
URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA
Migratzaile eta Errefuxiatuen Mundu Jardunaldia

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandea ospatzen dugu pozik. Nahi duen eran eragiten duen Espirituaren presentzia eta indarra aitortzen ditugu Eukaristian. Espiritu honek eragiten gaitu eta gai egiten Ebanjelioaren poza iragartzen duten profeta eta eragile izan gaitzen.

«Baita txiki hauetako bakar bat ere» dio gaurko Migratzaile eta Errefuxiatuen Mundu Jardunaldiaren goiburuak. Ez dago besterik, kristauok ezin dugu inor albora utzi; gure-gurea behar dugu migratzaileei, pertsona bezala zor zaien duintasuna defendatzea. Otoitzean gogoan izango dugu asmo hau.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbattera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, barkatuz eta errukituz
agertzen duzu bereziki zeure ahalmen handia;
isur ezazu etengabe gure gainera zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren deiari leialtasunez erantzuten al diogun hausnartzeko balio digu gaurko Hitzak. Jainkoaren justizia onartzea, bere bizi-promesa geureganatzea da: ez dugu hitzez bakarrik Jainkoa onartu behar, geure bizitza osoarekin baizik.

Lehenengo irakurgaia (Ez 18, 25-28)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Zuek diozue: “Ez da bidezkoa Jaunaren jokabidea”. Entzun, bada, israeldarrok: Nire jokabidea bidezkoa ez dela? Ez ote da zuena bidezkoa ez dena?

Zintzoa, bere zuzentasunetik alden du, txarkeria egin eta hiltzen bada, egin duen txarkeriagatik hilko da. Eta gaiztoak, egin duen gaiztakeriatik alden du eta zuzenbidez eta justiziaz jokatzeko badu, bizirik iraungo du. Egindako txarkeriez ohartu eta haietatik aldentzen bada, biziko da, bai, eta ez da hilko».

Erantzun-salmoa (*Sal* 25 [24], 4-5. 6-7. 8-9)

- ℣. Azaldu niri, Jauna, zeure bideak, ‘
erakutsi zeure **bid**exkak.
Gida nazazu zeure leialtasunean, eta **ira**katsi,
Zu baitzara nire Jainko salbat**tzai**lea,
Zugan itxaro dut eteng**abe**. ℟.
- ℣. Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta maitasuna, ‘
betidanikoak **bait**tira.
Ez gogoratu, ordean, nire gaztaroko bekatuez, ‘
ez nire **err**uez;
gogoratu nitaz zeure maitas**su**nean,
zeure ontasunari dagokionez, **Jauna**. ℟.
- ℣. Ona eta zuzena **da** Jauna,
bidea erakusten die bekat**ta**riei.
Apalak zuzenbidez dar**ra**matza,
bere bidea erakusten die apale**i**. ℟.

Bigarren irakurgaia (*Flp 2, 1-11*)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: Egia bada Kristok adore ematen dizuela eta maitasunak kementsu egiten zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta errukitsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin ezer norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, eta besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez norberaren onari bakarrik begiratzuz, besteena ere bilatzuz baizik. Izan itzazue zeuengan Kristo Jesusi dagozkion asmoak:

[Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari;
bestela baizik, zegokion aintza utzi
eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.
Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainera goratu zuen Jainkoak
eta izen guztietan bikainena eman zion,
Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen,
zeruan, lurrian eta lurpean,
eta mingain guztiek aitoren deitzen Jesu Kristo dela Jauna,
Jainko Aitaren aintzarako.]

Aleluia (*Jn 10, 27*)

✠. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa, dio Jaunak;
 Nik ezagutzen ditut,
 eta haiek jarraitu egiten didate. ✠.

Ebanjelioa (*Mt 21, 28-32*)**Homiliarako argibideak**

Egintzetan agertzen den maitasuna

Egungo gizartean eta politikan ez da zatiketarik falta. Leon Aita Santuaren bisitaldi apostolikoak garbi utzi zuen Elizak elkarriketarako eta batasunerako bidean egin beharreko ekarpenaren garrantzia. Azkenean, profetak gogorarazten digun bezala, denok izango gara gure egintzen seme-alaba. Haiek dira salbatuko gaituztenak edo hondamendira eramango gaituztenak, orain arte gertatu den bezala (*Ez 18, 25-28*).

Esatea edo egitea da ebanjelioak jartzen digun alternatiba (*Mt 21, 28-32*). Mundua onen eta txarren artean, hitzez obeditzen dutenen eta egitez obeditzen dutenen artean (nahiz eta hitzez ezezkoa eman zuten) banatzen duen parabola bat aurkezten digu argiagoa izateko. Zuri-beltzeko aurkezpen honek parabolako bi semeetako batekin erraz identifikatzea ahalbidetzen digu. Egia esan, gure bizitzan denetarik egongo da, baina pertsonaietako bat aukeratu behar

dugunez, gure existentziaren orientazio funtsezkoa zein den ikus dezakegu.

Aitaren nahia betetzen saiatzea da kontua, berak nahi duena, berarentzat atsegina dena. Maitasuna egintzekin erakutsi behar da, batez ere, eta ez dugu hitz hutsaletan geratu behar. Hori egin zuen Jesusek, Aitari baiezkot baldintzagabea eman baitzion. Aitarekiko eta gizakiekiko, bere senideekiko, maitasunagatik, Jesus gizon egin zen gizakiak salbatzeko jainko-proiektua gauzatzeko (*Flp* 2, 1-11). Jesus, Jainko zena, Jainko gisa bizi beharrean, edozein gizon bezala bizitzea aukeratu zuen, pobre eta xume. Batez ere, besteen alde heriotzarik lotsagarriena onartu zuen, esklabo baten tipikoa, gurutzeko heriotza. Garrantzitsua Jesusen bizitza da, eta ez bere doktrina soilik. Haren bizitza eta egintzak dira salbatu gaituztenak eta Aitak bere eskuinaldean goratzea eragin dutenak. Horrela gauzatzen zuen Jainkoak gizakiekiko maitasun-proiektua.

Aitaren proiektuarekin kolaboratu ahal izateko, Jainkoak esaten diguna entzutera jarri behar da, ez bakarrik gizaki guztientzat eman dituen aginduen bidez, baizik eta niri Jainkoaren deiari erantzuteko modu berezia zein den deskubritzen saiatuz. Bakoitzak bokazio pertsonal bat du, kode genetikoan idatzia, Jainkoak niregan duen proiektua adierazten duena. Jainkoak bere borondatea bere hitzaren bidez agertzen du normalean, gure bihotzaren barnean oihartzun egiten duena eta isiltasunean eta otoitzean entzun behar duguna. Baina batzuetan oihuka hitz egiten du bizitzen ari garen historiaren probokazioen bidez, eta horren aurrean ezin gara zentzugabe geratu. Garaiko seinaleak interpretatzen jakin behar da. Eguneroko bizitzako gertakarien bidez, batez ere pertsonekin izandako topaketaren bidez, Jainkoa etengabe interpelatzen ari zait.

Jainkoaren proiektua onar dezaket eta nire bizitza Jainkoarengana bideratuta gauzatu, edo, aitzitik, uko egin diezaioket eta nire proiektua neuk definitu nahi izan. Jainkoak askatasuna eman digu, gure bizitzarekin nahi duguna egitea ahalbidetzen diguna: gauzatu edo hondatu. Jasotako askatasun hori ondo erabiltzeko, hartzen ditugun erabaki bakoitzean jokoan dauden balioak etengabe bereizi behar dira. Itxuraz, guretzat arrotzak diren errealitateak aukeratzen ari garela dirudi, egia esan, gure bizitza da aukeratzen ari garena eta pixkanaka modelatzen ari garena.

Eukaristia honetan parte hartzea Jaunari emandako gure baieztokoaren adierazpena da. Jaunak bere mahastian lanean aritzeko eta harekin bere Erreinua etortzearen alde kolaboratzeko aukera eman diezagula.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizaki guztien alde eta beraien beharren alde, inori falta ez dakion gure bihotz onaren laguntza:

- Elizaren alde, bere ondasunak asmo pastoral eta sozialen zerbitzuan erabil ditzala, eska diezaiogun Jaunari.
- Ekonomikariek beren plangintzak egitekoan gogoan izan dezatela beti, pertsonaren osotasunaren garapena izan behar dutela helburu, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure gizartearen oparotasun eta leunkeriazko giroan bizi diren aberatsak kontura daitezela, badirela beren banketeetako ate ondoan horien apurren zain dauden Lazaro pobreak, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure bihotza ez dadila gogortu, baizik eta Jainkoak munduko pobreen bidez egiten digun deia entzun dezagula, eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, prestutasunez onartzen dituzu bihotz-berritu eta zuzentasunez jokatzeko duten bekatariak; entzun gure otoitzak eta emaguzu Kristoren bat eginez bakea eta barkamena iristeko grazia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Jainko errukitsua, onar itzazu gure dohain hauek, eta zeure Elizaren eskaintza honetatik sor ezazu guretzat bedeinkazio guztien iturria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Betiko biziaren sakramentu honek berri ditzala, Jauna, gure gorputz-arimak, zure Semearen heriotza aldarrikatuz berarekin bat egiten dugunok, haren piztueran ere parte izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

